

APARTEKO BI EMAKUME

**“... Bihotza kargaturik
Begiak bustirik...”**

Mikel Zabaleta

Bakoitza bere moduan, bakoitza bere jardueran baina, bai, dudarik gabe, apartekoak ziren hilabete gutxitan joan zaizkigun bi lagun hauek: Ángela eta Miren, Miren eta Ángela... bata 101 urte zituela, 88 bestea.



Adinduak bai, bizitza luze eta oparakoak baina gazte asko baina gazteagoak. Gure herriko historiako mende baten lekukoak baina partaideak ere, noski, eta nola! Badaude pertsonak bizitzatik pasatzen direla baina badaude batzuk bizitza egiten dutela eta azken hauetakoak ziren Miren eta Ángela. Emakume indartsuak eta alaiak, borrokalariak eta lasaiak, bizitzaren kolpeen aurrean amore ematen ez zutenetarikoa. Eta, batez

ere, familia ugariko buruak, adar asko sortu dituzten enborrak.

Gabon bezperan, goiz goizean, Ángela Loidi zendu zela jakinarazi zidaten. Bere senideek geroago esan zidatenez maletak prestaturik zeuzkan bidaiatxo bat egiteko. Ángela beti Ángela. Bidaiekiko grina izugarria zuen eta oraindik gogoratzen dut bere etxera joaten

nintzenez herrialde exotikoen diapositibak ordenagailuan gordetzen ari zela. Gure solasetan maiz hitz egin genuen bioi hainbeste gustatzen zitzaigun gai hori buruz. Adibidez, berak aholkatu zidan bezala duela oso gutxi Sizilian egon naiz. Orain falta zaizkiet ezagutzeko berak gomendatutako beste herrialdeak bizitatzea: Etiopia, Bhutan, Armenia... Hala bedi!

Aldizkari honetan behin baina gehiagotan idatzi dut Ángela Loidiren bizitzari buruz eta Bilduman lan bat plazaratu nuen bere familiaren historia azalduz, bere aita izan zen Florentino helburu nagusia zuela, hori dena Ángelaren memoria paregabekoan oinarriturik. 2011 urtean ezagutu nuen Ángela eta handik aurrera solas eder eta sakonak izan genituen. Berari esker Errenteriako mende bat eta gehiago ezagutu ahal izan nuen baina, batez ere, bere nortasun sakona eta samurraz aberastu nintzen. Oraindik gordeta daukat, nire aita hil zenean, doluminak ematen bidali zidan ohartxo gozoa. Beste betean nire auzoan ibaia desbordatu zela enteratu zenean segituan deitu zidan, badaezpada, toki bat eskainiz nire gauzak gordetzeko, beharra baldin banuen. Horrela zen Ángela.

Kontutan hartu behar dugula jaio zen urtean -1916- Austro-Hungariar eta Otomano Inperioak oraindik esistitzen zirela eta Errusian oraindik zarea zeudela agintean. Bere bizitza oso luzea eta aberatsa izan zen. Hainbat eta hainbat gauza bizi zituen, onak eta txarrak eta pertsona interesgarri mordo bat ezagutu zituen. Adibidez, bera baina urte bat zaharrago soilik zela Koldo Mitxelena; Angelak beti Koldobika Mitxelena esaten zuen.

Miren pixka bat beranduago joan zitzaigun, martxoan, alegia. Igande baten goiza zen enteratu nintzenez eta pentsatu nuen... atsedena hartu du behingoz. Miren denbora dexente zeraman gaixorik baina izugarri ondo eraman zuen, bizitzaren gorabehera



guztiak eraman zituen bezala. Kalera irten zen ezinezkoa egin zitzaion arte. Hogei urte baina gehiagotik ezagutzen nuen Miren eta sarritan hitz egin genuen ere. Franco diktadoreak markatu zuen bere bizitza. Hautzaroan bere aita Serapio hil zutenean gorriak pasa behar izan zituzten. Eta gero, 70 hamarkadan familia ugari bateko ama zenean, berriz jasan zuen frankismoaren azken hatzaparrak, orain bere seme-alaben aurka.

Mirenen bizitza erabat oparo eta aberatsa izan zen. Hainbeste eman zuen! Lehenik eta behin bere familiari, noski, baina baita ere Errenteria osoko gizarteari. Azken urteotan bere aitaren memoria aldarrikatu arren behin eta berriz, esan behar dut berak egin zuenez asko eta asko konta zezakeela ere. Ondo dakit nik duela hogeitun urte elkarrizketa bat egin niola bere jardueri buruz: Lehenengo amnistiaren aldeko batzordearen sorrera, Errenteriako asanblada, ikurriñalegalizatze borroka, politika eta alderdiak... eta gero

Bildumaren aurkezpena. 2015-01-30. Argazkia: EUA-AME (A136F093).

iritsi ziren desengainoei buruz ere. Hainbeste tirabirak pasa zituen Mirenek urte haietan. Baina horretaz ez zuen asko hitz egin nahi protagonista ez bait zuen izan nahi. Umila zen gure Miren, umila baina ausarta ere urte gogorretan demostratu zuen bezala.

Urte haietako beste abenturen artean, gogoratzen dut bereziki nola kontatu zidan Guardia Zibilekin izan zuen eztabaida. Garai hartan drogeria bat zuten Mirenek eta bere senarrak -Drogeria Etxebeste- eta lehegailu bat jartzearen abiso bat jaso zuten. Asuntua ez zen farre egitekoa duela denbora gutxi ibilgailua erre ziotela ere kontutan harturik. Berak bazekien ondo ez bazirela zuzenki Goardia Zibilek ipini zutena autoreak ez lirateke koartelek oso urrun ibiliko. Horrexegatik, zuzen zuzen hurbildu zen hara eta esan zien kontuz ibiltzeko, drogeria bat zela bere denda eta han leher eta erregai ziren material asko gordetzen zituztela. Imajinatu ze aurpegia jarri zion sarjentoak.... Baina ez zen ausartu ezer esateari Mireni...

Mirenek beste kezkek zituen bere bizitzan, noski. Laguntza soziala, emakumearen berdintasunaren aldeko grina, arteak (margoketa eta musika batik bat)... Angela bezala etxetik kanpo lan egin zuen eta batxiller titulua lortu zuen, zerbait zaila garai hartako emakumen batentzat

Orain emakumeen ikuspuntua aldarrikatu nahi dela arlo guztietan aukera ona dago bi emakume hauen bilakaera gogorarazteko, bai emakume bezala baina, batez ere, ohiz kanpoko gizakiak izan zirelako bere bizitza osotasunean. Miren eta Angela, Angela eta Miren ez gaituzte utziko arrastu sakonik utzi gabe benetan aparteko bi emakume izan zirelako.

Bukatzeko nire bihotzeko samina agertu nahi diet bere senideei baina, dudarik gabe, nire poza eta harrotasuna biak ezagutzeko aukera izateagatik eta, baita ere, laguntzat edukitzeagatik.



Mendarte familiako kideen erretratu, 1925. Ezkerretik eskuinera: Arantxa Mendarte Casares, Javier Mendarte Casares eta Miren Mendarte Casares. Argazkia: EUA-AME (A055F045).



Eskolako kantineko langileak, 1935. Zirkuluan, Angelita Loidi. Argazkia: EUA-AME (A055F022).